

“Kutsatzaile emergenteei buruzko” ekimen pilotuak



2017an, Vitoria-Gasteizen, **kutsagarri mota horri buruz familien eta ikasleen artean kontzientzia pizteko asmoz bi ekimen aitzindari** burutuko dira. Lehenengoari dagokionez, erabilerari lotutako ohiturak eta sentibilizazio-maila neurtzeko kontsulta bat burutu nahi da Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren (CEA-IGKren) **Etxe Berdeak izeneko Programan** parte hartzen duten 50 familien artean. Horretarako, prestakuntzarako berariazko materiala sortu eta familiek arazo honen inguruan dakitena eta horri derizotena ebaluatuko dute.

Bestetik, **Egibiderek**in elkarlanean prestakuntzako tailerrak burutuko dira. Haien bitartez, ikasleen kontsumo arloko eguneroko ohituretan eragiteko asmoa dago, zehatz-mehatz, hurrengo arloetan: DBHko lehenengo zikloa eta Osasun, Kimika eta Segurtasunari nahiz Ingurumenari lotutako familia profesionalentako Prestakuntza Zikloak (azken hauei baliagarria izango zaie etorkizunean euren jardura profesionalen). Besteak beste, produktu kimiko eta kutsagarrien erabilera gutxitzeko erronketan edo proiektuetan oinarrituta lan egitea eta ikasleen artean ardurazko ohiturak hartzeari garrantzia ematea proposatzen da. Urteko lehenengo hiruhilekoan burutuko da eta 200 lagunek parte hartuko dute bertan.

AMVISAK parte hartzen duen “Ez elikatu munstroa” izenburuko kanpainaren xedea euskal herritarrei komunontzira paper zapi bustiak isurtzearen ondorioez ohartaraztea eta zentzuzko ohiturak sustatzea da. Gainera, beste proiektu zabalago baten barruan dago. Hona hemen haren izena: **“Herritarren ohiturak eta kutsagarri emergenteak”**. Hala izendatzen ditugu etxean erabili ohi ditugun produktuez osatutako substantziak edo konposatuak (garbikariak, medikamentuak, kosmetikoak, etab.); izan ere, haien erabilerarengatik edo isurbide eta komunontzien bidez horiek botatzearen ondorioz gure ibaien kutsaduraren iturri bihurtu dira.

Kontsumoak kontrolatzeko programa

Futura Planaren jardueren balantzea

Futura Planak ur kontsumoaren jarraipen berezia egiten den 315 kontratu baino gehiago dauzka. **Horren baitan daude Vitoria-Gasteizko kontsumitzaile nagusiek eta udal instalakuntza garrantzitsuenek**. Jarraipen honi esker, igarri gabe egon ziren ur ihesak edo konpondu gabeko arazoak eta aurreko ur ihesak egon zitezkeela adierazten zuten kontsumoaren desbideraketak atzeman ahal izan dituzte.

Azken urte bietan, idatzizko 39 jakinarazpen -haietako 29 udal zentroetara- igorri dira kontsumo irregularren berri emateko asmoz. Gainera, arazoak zuzentzeagatik kontsumoen bilakaera onari buruzko 15 txosten bidali dira, horietako 11 udal zentroetara. Datuek horrelako jardura motak babesten dituzte, izan ere, matxuren edo barruko instalakuntza akastunen konponketari esker, uraren kontsumoan %67a aurreztu dela kalkulatu da (84.700 m³ gutxi gorabehera) eskuhartzearen aurreko kontsumoarekin alderatuta eta, dirutan, 72.334,00 € aurreztu dira (2016ko tarifaren arabera).

Garapenerako Lankidetzazko 2016ko proiektuak onartu dira

Ur eta Saneamendu Ataleko Garapenerako Lankidetzaren alorreko urte proiektuak batera finantzatzeko 2016ko dirulaguntzen jendaurreko deialdia ebatzi dira. Onartutako dirulaguntzen zenbatekoa, guztira, honakoa hau da: 433.999,04 €

Eskatzailea	Proiektua	Dirulaguntza
Kolonia-Euskadi Elkarte	Koloniako Ata-Planadas ibaiaren goialdean 3 zidorreko ubide komunitarioko sistema eraikitzea.	AMVISAK 149.049,42 €
Nazioarteko Elkartasuna Solidaridad Internacional	Edateko ura eta saneamendua Thieppe herrirako (Senegal)	Vitoria-Gasteizko Udalak 149.949,62 €
Medicus Mundi Araba	Edateko ura eta saneamendu iraunkorra Totorapata herrian (Ayacucho - Peru)	Vitoria-Gasteizko Udalak 100.839,09 € eta AMVISAK 34.160,91 €.

Aurreko zenbatekoen gain, AMVISAK 50.000,00 € eman dizkio Unicef erakundeari “Ura, Saneamendua eta Higienea Matthew hurakanak Haitin eragindako larrialdia” izeneko esku-hartzerako, Larrialdietarako Arabako Funtsaren Batzorde Teknikoak egindako ebaluazioaren ondoren.

IRADOKIZUNEN BAT EGIN NAHI DIGUZU, EDO IRITZIA EMAN?

Posta elektronikoz egin dezakezu. Hauxe da helbidea:
info@amvisa-futura.org